

ZERGATIK?

Zergatik gorrotatzen gaituzte horrenbeste munduan?, galdetzen omen dute Ipar Amerikako estatu batuarrek, iazko irailaren 11z geroztik bereziki. Ongia eta gaizkiaren arteko bereizketa baboak alde batera utzita, ildo hauetan bilatu behar da erantzun zuzena: AEBko populazioak energiaren banaketa zuzen baten arabera legokiokeena baino askozaz gehiago kontsumitzen du. Hala, AEBko kanpo politikak munduko energia iturrien kontrola du helburu nagusi. Petrolioaren kontrolaren ondoan, hutsaren hurrengo da demokrazia edo giza eskubideen defentsak AEBko nazioarteko politika erabakitzerakoan duen tokia. Bush aita- semeak petrolio gizonak izan dira biak presidente baino lehen. Irakek ditu munduan petrolio erreserba handienak, Saudi Arabiaren atzetik. Hor bilatu behar dira Iraken kontrako eraso iragarriaren arrazoiak. Irakiarren bizitzak balio gutxi du petrolioaren ondoan. Iraken dudazko arma nuklear eta kimikoak edo Al Qaidarekin izan dezakeen harremana aitzakiak baino ez dira.

Zergatik ez gaituzte pakean uzten? Espainiar izan nahi ez badute, doazela, eta kitto!, esaten omen dute espainiar askok «euskal arazoaz» nazka-nazka eginda. Horixe ba, pentsatzen dugu euskaldun askok, zergatik ez gaituzte pakean uzten? Zergatik Euskal Herriko hegoaldea espainiar estatuan gorde nahi temoso hori? Lurrealde txikia da, biztanleria ere bai; ekonomikoki gauza handirik ez, proportzioan; jada ez dauka, inoiz eduki badu, errepublika komunista izateko arriskurik. Zein da orduan espainiar estatuak Euskal Herrian duen interesa? Fernandez Ordoñez espainiar atzerri ministro zenak argi adierazi omen zuen: Euskal Herriaren independentzia ez da problema Espainiarentzat; horren atzetik etorri nahiko lukeen Kataluniaren independentzia, hori bai, hori da problema Espainiarentzat. Pujolek duela gutxi esana da: Katalunia ez da periferia Espainian; Katalunia Espainiaren motorra da. Kataluniak ez du independentzia aldarrikapen ozenik egiten, baina ongi ikasi du Euskal Herriarenei emaitzik ateratzen. Euskal Herriaren independentziak, Kataluniarena ekar lezake, eta azken honek espainiar estatuaren gainbehera.

Zaunka erantzun dio Espainiako gobernuak Ibarretxeren proposamenari; goxo-goxo Artur Masen antzekoari. Esanak esan, diferentzia ez dago euskal bonbetan.